



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriak 2

Vitoria-Gasteiz, 2 de octubre de 2018

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

500.000 EURO NEKAZARITZAKO ETA BASOGINTZAKO ELKARTEEI LAGUNTZEKO

- **Euskadiko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan sartuta daude laguntzak, eta lehen sektorean enpresen elkartegintza eta lankidetzak bultzatzeko helburua dute**

Nekazaritzako eta basogintzako ekoizleen elkarteak edo erakundeak sortzeko eta horien batasunak eta federazioak eratzeko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan aurreikusten diren laguntzak 2018ko ekitaldirako iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturretako sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak, azken kontseilu bileran. Eusko Jaurlaritza lehen sektorean enpresen elkartegintza eta lankidetzak bultzatzeko egiten ari den politikaren esparruan ematen den beste urrats bat gehiago da.

2018rako aurreikusten diren laguntzak finantzatzeko, 500.000 euro erabiliko dira, eta horietatik 400.000 euro FEADERen kontura izango dira eta gainerakoa, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura.

Laguntza horiek eskuratu ahal izango dituzte nekazaritza eta basogintzako sektoreetako ekoizleen elkarte edo erakundeek, eta horien batasunek edo federazioek, 2015etik aurrera eratu eta hala aitortuak izan badira eta eskakizun guztiak betetzen badituzte, esaterako hauek:

- Ezingo dira enpresa txiki eta ertainen kategoriari dagokiona baino tamaina handiagokoak izan.
- Ekoizpenaren zati bat elkarteko kideen artean saltzea.
- 5 urterako enpresa plan bat edukitzea, salmenten eta fakturazioaren aurreikuspenekin

Lehiaketa izango da laguntzak emateko prozedura. Laguntzetara bideratutako diru kopuruarekin aurkeztutako eskaera guztiei erantzuterik ez balego, baremo honen arabera puntuaziorik altuena lortu duten eskaerei emango zaizkie laguntzak:

- Jada eraturik eta aitortuta dauden ekoizleen elkarteek edo elkarte horien batasunek egindako eskaerak, 20 puntu.
- 5 urterako negozio planean euren produktuen salmenta bolumena handitzea aurreikusten duten ekoizleen elkarteek edo elkarte horien batasunek egindako eskaerak, 10 eta 6 puntu artean

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko

Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari helaraziko zaizkio, eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren bulegoetan, Vitoria-Gasteizko Donostia-San Sebastian kaleko 1ean, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aurreikusten dituen lekuetako edo edo formetako edozeinetan.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK INTERES SOZIALTZAT JOTZEN DU BIZI BIDE, FIBROMIALGIAREN, NEKE KRONIKOAREN, SENTIKORTASUN KIMIKO ANIZKOITZAREN ETA ELEKTROHIPERSENTIKORTASUNAREN ELKARTEA

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, interes sozialtzat jo du **Bizi Bide**; Gipuzkoako elkarte da, fibromialgiaren, neke kronikoaren, sentikortasun kimiko anizkoitzaren eta elektrohipersentikortasunaren elkarte.

Bizi Bide irabazi-asmorik gabeko erakundea da; 2003an sortu zen eta helburu du, besteak beste, fibromialgiaren, neke kronikoaren, sentikortasun kimiko anizkoitzaren eta elektrohipersentikortasunaren gaineko informazioa emateko, horietan laguntzeko, kontzientziatzeko eta sustatzeko jarduerak egitea.

Euskadin gizarte-zerbitzuak eman ditu erkidego honetan orain arte, etengabe, 2003. urteaz geroztik.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

HITZARMEN BANA ONARTU DA BILBON GAZTEENTZAKO 66 APARTAMENTU ETA ZORTZI ETXEBIZITZA SOZIAL ERAIKITZEKO

Gobernu Kontseiluak baimena eman dio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolari Bilboko Udalarekin alokairuko etxebizitza publikoen bi sustapen eraikitza bideratutako hitzarmen bana izenpetzeko.

Lehen sustapenean, gazteentzako 66 apartamentu eraikiko dira Zorrozaurreko eremuan, zuzkidura-bizitokiaren formulapean. 35 urtetik beherako pertsonen zuzenduta daude, eta, ahal bada, Bilbon erroldatuta daudenei.

Zuzkidura-bizitokiak aldi baterako etxebizitza-soluzio gisa pentsatuta daude, bertan bizi direnak bost urte egon baitaitezke gehienez. Ezaugarri horiek aproposak dira gazteen etxebizitza-premiei lehentasunez erantzuteko.

Bigarren sustapenean, berriz, alokairu sozialeko 8 etxebizitza eraikiko dira Deustuko eremuan. Etxebizitza horiek ere 35 urtetik beherako pertsonen zuzenduta daude.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak bi sustapen horiei lotutako eraikuntza- eta urbanizazio-obra egingo ditu 4 urteko epean, Udalak eskritura publikoan lurzatiaren doako lagapena formalizatzen duenetik aurrera zenbatzen hasita.

Hezkuntza

1,1 MILIOI EUROKO DIRU-LAGUNTZA IKERBASQUE FUNDAZIOARI, BIHAR PROIEKTUA BULTZATZEKO

- **Bihar proiektuak ikerketarako gune berri bat sortuko du Leioako Zientzia Parkean, iritsi berri diren ikertzaileei erantzun azkar eta malgua emateko gai izango den espazioa**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, bikaintasunezko ikerketa bultzatzeko 1,1 milioi euroko diru-laguntza zuzena ematea Ikerbasque Fundazioari. Ikerbasquek Bihar proiektua garatzeko baliatuko du laguntza, hau da, UPV/EHUren Leioako Zientzia Parkean ikerketa taldeak hartuko dituen ikerketa-gune berri bat sortzeko.

Horregatik, Bihar izena hartuko duen gunea bertan kokatzeko, Ikerbasque Fundazioak mila metro koadro inguru dituen espazioa eskuratu du aipaturiko Zientzia Parke horretako eraikin batean. Proiektu honekin Ikerbasqueren helburua da ezagutzaren arlo guztietako ikerketa taldeak hartuko dituen gune bat izatea, iritsi berri diren ikertzaileei eta hauen ikertzaile-taldeei erantzun azkar eta malgua emateko gai izango den espazioa. Era honetan, ikertzaileok iritsi bezain laster ekin ahal izango diote ikerketa lanari, dagokien ikerketa-zentroan euren espazio propioa eta egokitua izan artean.

Bihar ikerketa espazioa BERC deritzen beste ikerketa zentro batzuegandik hurbil kokatuko da (Achucarro, BC3, BCMaterials, Biofisika), eta baita UPV/EHUren Leioako Campusean lanean diharduten beste Ikerbasque ikertzaile talde zabal baten inguruan ere. Ekimen hau Ikerbasque Fundazioak 2021erako onartu duen estrategiaren baitan kokatzen da. Estrategia horrek, besteak beste, ikerketarako espazioak garatea eta azpiegiturak sortzea jasotzen du.

Ikerbasque 2006an sortu zen, bikaintasunezko ikertzaileak erakarriz eta talentua berreskuratuz ikerketa zientifikoa garatea helburu hartuta. Gaur egun Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentroetan ari diren Ikerbasque ikertzaileen kopurua 250etik gorakoa da. Europako Batzordeak “*HR Excellence in Research*” saria aitortu dio Ikerbasqueri, ikertzaileak erakartzeko erakutsi duen bikaintasunagatik. Berau da Estatuan aitortza hau jaso duen lehen erakunde zientifikoa.

Ikerbasquek orotara, 125 milioi euroko diru-itzulera lortu du Euskadiko ikerketarako. Eginiko inbertsioaren berehalako itzulerari dagokionez, Ikerbasquek eta bere ikertzaileek 2 euroko itzulera lortzen dute, Eusko Jaurlaritzak Fundazioan inbertitzen duen euro bakoitzeko.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

MERKATARITZAKO EKINTZAILETZARI LAGUNTZEKO PLAN BERRIAK 2.200.000 EURO BIDERATU DITU AUTONOMOEN ETA ENPRESEN EKINTZAILETZA KOMERTZIALA BULTZATZEKO ETA UDAL PROIEKTUETARAKO

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak autonomoen, enpresen eta udalerrien ekintzailtza komertziala bultzatzeko programa berri bat onetsi du Gobernu Kontseiluan, bi milioi eta berrehun mila euroko aurrekontuarekin. Aurrekontu horretatik milioi bat enpresen ekintzailtzarako izango da eta gainerakoa, milioi bat eta berrehun mila euro, euskal udalek merkataritzaren arloan sustatutako proiektuetarako.

Ekintzailtza komertziala bultzatzea da sortu berri den programa honen helburua, jarduerari lehenbiziko aldiz ekiten dionarentzat zein bere negozio-lerroak zabaltzen dituenarentzat. Udaletako jarduera-proiektuak ere sartzen dira programan, berritzea eta bereiztea helburu hartuta, hiri-inguruneetan ezartzeko eta kokatzeko estrategiak garatzen dituztenak, EAEko hiriguneetan ez ezik inguruetan ere (auzo berriak, zahartuak, degradatuak...).

Programa honekin erantzun bat ematen zaio euskal merkataritza-sektoreak Gobernuari egindako eskari historiko bati. Sectoreak aspalditik ziharduen eskatzen bere arloan ekintzailtza babesteko programen errefortzua. Hala, laguntza-lerro honek enpresen bikaintasunaren eta berrikuntzaren alde egiten du apustu hurbileko merkataritzan, eta ekonomikoki nahiz sozialki defaboratuta dauden inguruneei bultzada bat ematea da bere asmoa. Era berean, formula bat bilatu da emakumeen ekintzailtza bultzatzeko, eta horretarako aurrekontuaren % 50a erreserbatu egin da emakumeak aitzindari diren merkataritza-enpresetarako eta proiektuetarako.

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak ondokoak dira: autonomo diren pertsonen eta merkataritzaren arloko enpresen kasuan, enpresa komertzial berrien gastuak eta inbertsioak edo orain daudenak handitzeari dagozkionak. Bestalde, bideragarritasun komertzialari buruzko azterlanek ere jasoko dute laguntza, edo merkataritzako ekintzailtza bultzatuko duten udalen inbertsioek. Laguntzen zenbatekoa, Euskadiko Udalen kasuan, onetsitako proiektuaren % 70a da, eta 120.000 eurora arte. Ez da mugarik ezarri udalerrri bakoitzak aurkez ditzakeen proiektuen kopuruan.

Merkataritzako enpresentzat eta autonomo diren pertsonentzat, onetsitako proiektuaren % 70a izango da, 20.000 euroko mugarekin. Gehienez hiru eskaera onartuko dira eskatzaile bakoitzeko.

Lana eta Justizia

EUSKADIKO ENPRESETAN ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA ZABALDU ETA EZARTZEKO 100.000 EUROKO LAGUNTZA

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak, aurten, 100.000 euro bideratuko ditu Euskadiko enpresetan Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaldu eta ezartzeko, balio estrategiko handikotzat jotzen baitu EGEa zabaldu eta hedatzea, gizarte-ekonomiaren identitate-ezaugarria baita.

Laguntzak EGEaren balio eta printzipioak zabaltzera bideratuta daude, gizarte-ekonomiaren berezko eremuaz gaudituz, Enpresen Gizarte Erantzukizunaren garapenean erabat inplikatzeko gizarte-ekonomiako enpresetan bilakatzea planteatzeko aurretiazko behin betiko urratsa izan daitekeelakoan. Besteak beste, EGEaren prestakuntza-metodologiak prestatzea aurreikusten da, horiek ezartzeko GRI (Global Reporting Initiative) jasangarritasun-memoriak prestatzea eta EGEaren kultura jardunbide egokien identifikazioaren bitartez zabaltzea.

Laguntzetara honako hauek jo dezakete: unibertsitateak, enpresa-elkarteak, EGEan espezializatuta dauden erakundeak eta langileen parte-hartzea sustatzeko eta EGEaren jardunbide egokiak zabaltzeko azterlanak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainak.

Eskabideak EHAAn argitaratu eta hilabete geroagora arte izapidetu daitezke, baliabide elektronikoak erabiliz. Izapidetzeari buruzko xehetasunak honako egoitza elektroniko honetan daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion_RSE_2018/y22-izapide/es

Eskabidearen ondoko izapideak <https://euskadi.eus> atarian egingo dira, «Egoitza elektronikoa / Nire kudeaketak» atalean.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

500.000 EUROS EN AYUDAS PARA LAS AGRUPACIONES AGRARIAS Y FORESTALES

- **Incluidas en el Programa de Desarrollo Rural de Euskadi 2015-2020, favorece el asociacionismo y la cooperación empresarial en el sector primario**

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado en su última reunión la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras Arantxa Tapia, por la que se la que se convocan, para el ejercicio 2018, las ayudas incluidas en el Programa de Desarrollo Rural de Euskadi 2015-2020 destinadas a la creación de agrupaciones u organizaciones de productores agrarias y forestales y sus uniones o federaciones. Ese es un paso más dentro de la política del Gobierno Vasco dirigido a favorecer el asociacionismo y la cooperación empresarial en el sector primario.

Para la financiación de las ayudas previstas para 2018 se destina la cantidad de 500.000 euros de los cuales 400.000 serán con cargo al FEADER, y el resto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las agrupaciones u organizaciones de productores del sector agrario y forestal, y sus uniones o federaciones, que se hayan constituido y hayan sido reconocidas como tales a partir de 2015 Y que cumplan todos los requisitos, tales como:

- Su tamaño no podrá sobrepasar la categoría de PYME.
- Comercializar una parte de la producción de sus asociados.
- Contar con un plan empresarial a 5 años con las previsiones de comercialización y facturación.

El procedimiento para la concesión de las ayudas es el concurso. En el supuesto de que la dotación total establecida no alcanzase para atender a la totalidad de las solicitudes presentadas, las ayudas se concederán a las solicitudes que obtengan mayor puntuación de conformidad con el siguiente baremo:

- Solicitudes de agrupaciones de productores, o sus uniones, ya constituidas y reconocidas, 20 puntos.
- Solicitudes de agrupaciones de productores, o sus uniones, cuyo plan de negocio a 5 años prevea mayor volumen de comercialización de producto, entre 10 y 6 puntos.

Las solicitudes se presentarán en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la orden en el Boletín Oficial del País Vasco. Estarán dirigidas a la Directora de Agricultura y Ganadería y se presentarán, bien en las dependencias del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, sitas en la calle Donostia-San Sebastián nº 1 de Vitoria-Gasteiz, o bien en cualquiera de los lugares y forma previstos por la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Empleo y Políticas Sociales

**EL CONSEJO DE GOBIERNO DECLARA DE INTERÉS SOCIAL A BIZI BIDE,
ASOCIACIÓN DE FIBROMIALGIA, SÍNDROME DE FATIGA CRÓNICA,
SENSIBILIDAD QUÍMICA MÚLTIPLE Y ELECTROHIPERSENSIBILIDAD, DE
GIPUZKOA**

A propuesta de **Beatriz Artolazabal**, Consejera de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, el Consejo de Gobierno ha declarado hoy de interés social a **Bizi Bide**, asociación guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, sensibilidad química múltiple y electrohipersensibilidad.

Bizi Bide es una entidad sin ánimo de lucro constituida en el año 2003 que tiene como objeto, entre otras, las actividades de apoyo, información, ayuda, concienciación y fomento del conocimiento de las enfermedades de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, sensibilidad química múltiple y electro-sensibilidad, entre otros fines.

Cuenta con una trayectoria histórica de prestación de servicios sociales en Euskadi, ya que ha acreditado el desarrollo de su actividad en esta comunidad ininterrumpidamente desde 2003

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

APROBADOS SENDOS CONVENIOS PARA CONSTRUIR EN BILBAO 66 APARTAMENTOS PARA JÓVENES Y OCHO VIVIENDAS SOCIALES

El Consejo de Gobierno ha autorizado al Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, Iñaki Arriola, la suscripción de sendos convenios con el Ayuntamiento de Bilbao para la construcción en esta ciudad de dos promociones de vivienda pública en alquiler.

La primera de ellas se destinará a la edificación de 66 apartamentos para jóvenes en el ámbito de Zorrozaurre bajo la fórmula de alojamientos dotacionales. Están dirigidos a personas menores de 35 años preferentemente empadronadas en Bilbao.

Los alojamientos dotacionales están pensados como una solución de vivienda temporal, ya que sus ocupantes no pueden permanecer en ellos más de cinco años. Estas características resultan idóneas para atender preferentemente las necesidades de viviendas de las personas jóvenes.

La segunda promoción posibilitará la construcción de 8 viviendas de alquiler social en el área de Deusto, destinados también a personas menores de 35 años.

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco acometerá las obras de edificación y urbanización vinculadas a estas dos promociones en el plazo de 4 años, a contar desde la formalización de la cesión gratuita de las parcelas por parte del Ayuntamiento en escritura pública.

Educación

SUBVENCIÓN DE 1,1 MILLONES A LA FUNDACIÓN IKERBASQUE, PARA EL IMPULSO AL PROYECTO BIHAR

- **El proyecto Bihar contempla la creación de un nuevo espacio de investigación en el Parque Científico de Leioa, capaz de dar una respuesta rápida y flexible a las incorporaciones de nuevo personal investigador**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, la concesión de una subvención directa por un importe de 1,1 millones de euros a la Fundación Ikerbasque, para el apoyo a la investigación de excelencia. Ikerbasque destinará esta subvención al desarrollo del Proyecto Bihar, un nuevo espacio para grupos de investigación en el Parque Científico de la UPV/EHU en Leioa.

Para ello, la Fundación Vasca para la Ciencia Ikerbasque ha adquirido en uno de los edificios del citado parque un espacio de cerca de mil metros cuadrados, donde se ubicará el nuevo espacio de investigación denominado Bihar. Este proyecto tiene por objetivo permitir que Ikerbasque disponga de un espacio para albergar grupos de investigación en diferentes áreas del conocimiento, de modo que se pueda dar una respuesta flexible y rápida a las incorporaciones de nuevos investigadores Ikerbasque y sus grupos de investigación adscritos a los diferentes centros de investigación BERCs y a la propia UPV/EHU. De esta manera, el personal investigador podrá comenzar con su investigación nada más incorporarse, a la espera de un espacio propio y acondicionado en su centro de adscripción.

El espacio de investigación Bihar se ubicará próximo a otros centros de investigación BERC (Achucarro, BC3, BCMaterials, Biofisika), así como a un colectivo importante de investigadores Ikerbasque que también desempeñan su labor en el Campus de Leioa de la UPV/EHU. Esta iniciativa se enmarca dentro de la estrategia aprobada por la Fundación Ikerbasque para el año 2021, que incluye la creación de infraestructuras de apoyo para el desarrollo de espacios de investigación.

Ikerbasque fue creado en 2006 para contribuir al desarrollo de la investigación científica mediante la atracción de investigadores de excelencia y la recuperación de talento. En la actualidad, su plantilla de investigadoras e investigadores en los centros de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación asciende a más de 230 personas. La Comisión Europea ha reconocido a Ikerbasque con el galardón “*HR Excellence in Research*” por su excelencia en la atracción de investigadores, siendo la primera institución científica del Estado en lograr esta distinción.

Ikerbasque ha logrado un retorno económico total para investigación de 125 millones de euros de fuera de Euskadi. En relación al retorno inmediato de la inversión realizada, Ikerbasque y sus investigadores logran un retorno de 2 euros por cada euro invertido por el Gobierno Vasco en la Fundación.

Turismo, Comercio y Consumo

EL NUEVO PROGRAMA DE AYUDAS AL EMPENDIMIENTO COMERCIAL DESTINA 2.200.000 EUROS PARA EL IMPULSO DEL EMPRENDIZAJE COMERCIAL DE AUTÓNOMOS, EMPRESAS Y EN PROYECTOS MUNICIPALES

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo ha aprobado en Consejo de Gobierno un nuevo programa de ayudas destinado a incentivar el emprendimiento comercial de personas autónomas, empresas y municipios dotado con dos millones doscientos mil euros. De este presupuesto un millón se destinará acciones de emprendimiento empresarial y el restante millón doscientos mil euros a proyectos promovidos por los ayuntamientos vascos en el ámbito del comercio.

El programa de nueva creación tiene como objetivo favorecer el emprendimiento comercial, tanto para quien inicia actividad, como para quien amplía sus líneas de negocio. Asimismo se dotarán aquellos proyectos de actuación de los Ayuntamientos que, en un contexto de innovación y singularidad, desarrollen estrategias de implantación y posicionamiento en los entornos urbanos, interviniendo no sólo en los centros urbanos, sino también en áreas de proximidad (barrios nuevos, envejecidos, degradados...) de la CAPV.

Con este programa se da una respuesta a una demanda histórica del sector comercial vasco al Gobierno. El sector venía demandando el refuerzo de los programas de apoyo al aprendizaje en el sector comercial. Esta línea de ayudas apuesta por la excelencia empresarial y por la innovación en el comercio de proximidad y busca dar un impulso a las zonas desfavorecidas tanto en lo económico como social. Asimismo se ha buscado una fórmula para favorecer el emprendizaje femenino con una reserva del 50% de la dotación económica destinada a empresas comerciales a proyectos liderados por mujeres.

Las actuaciones subvencionales son, en el caso de las personas en régimen laboral de autónomos y las empresas del ámbito comercial, los gastos e inversiones de las nuevas empresas comerciales o de ampliación de las ya existentes. Por otra parte se subvencionarán los estudios de viabilidad comercial o las inversiones de los ayuntamientos que favorezcan el emprendimiento comercial.

El importe de las ayudas en el caso de los Ayuntamientos de Euskadi es del 70% del proyecto aprobado y hasta 120.000 euros. No existe límite de proyectos a presentar por cada municipio.

Para las empresas comerciales y las personas en régimen laboral de autónomos la subvención alcanzará el 70% del proyecto aprobado con el límite de 20.000 euros. Se admitirá un máximo de tres solicitudes por solicitante.

Trabajo y Justicia

100.000 EUROS EN AYUDAS PARA LA DIFUSIÓN E IMPLANTACIÓN DE LA RESPONSABILIDAD SOCIAL EMPRESARIAL EN LAS EMPRESAS DE EUSKADI.

La Dirección de Economía Social destinará este año 100.000 euros en ayudas para la difusión e implantación de la Responsabilidad Social Empresarial en las empresas de Euskadi por considerar de gran valor estratégico la expansión y difusión de la RSE, seña de identidad de la Economía Social.

Las ayudas van a dirigidas a expandir los valores y principios de la RSE, más allá del propio ámbito de la Economía Social, con la convicción de que una implicación plena en el desarrollo de la Responsabilidad Social Empresarial puede ser un paso previo definitivo para plantearse la conversión en empresas de Economía Social. Entre otras acciones se contempla la elaboración de metodologías formativas de la RSE, su implantación mediante la elaboración de memorias de sostenibilidad GRI (Global Reporting Initiative) y la difusión de la cultura de la RSE a través de la identificación de las buenas prácticas.

Pueden acogerse a las ayudas: universidades, asociaciones empresariales, entidades especializadas en RSE y las pequeñas y medianas empresas que realizan estudios para la promoción de la participación de los trabajadores y difusión de buenas prácticas RSE.

La tramitación de las solicitudes se puede realizar hasta 1 mes después de su publicación en el BOPV y utilizando medios electrónicos. Las especificaciones sobre tramitación está disponible en la siguiente sede electrónica: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion_RSE_2018/y22-izapide/es

Los trámites posteriores a la solicitud se realizarán a través de <https://euskadi.eus> , en el apartado «Sede electrónica / Mis Gestiones».